



KILIMAK

Euskal Herriko runba

Kilimak taldea 2018an sortu zen Hernanin (Gipuzkoa). Esan daiteke runbara kasualitatez iritsi zirela. Jai giro batean jo zuen Agus Garmendiak runba abesti bat eta "kilimak" sentitu zituen sabelean, pinpilinpauxen zirrara. Lehen ideia hori sakonduta sortuko zen lasterrera Kilimak taldea helburu trinkoarekin: runbaren doinuak erabiliz bihotzak eta buruak alaitu gorputzak dantzak jartzeko. 2020an Gaztea irratia "entzulearen saria" jaso zuten. Ia 100 kontzertu eman dituzte, ez da kopuru makala jakinda egoeradela medio bi urtez geldirik egon dela taldea. Boskote hasieran, baina diskoa grabatzeko unean seigarren kidea batu zitzaizen, Ihintza Zozaya, Ioneren ahizpa.

Kilimak taldearen "Euskal Herriko runba" diskoa Hernaniko "Oh Brother!" estudioetan grabatu da 2021eko udan. Grabaketa, ekoizpena, nahasketa, eta masterizazioa Iñigo Egiak egin ditu. Diseinuak Ximon Agirrek eta Arantxa Vidalek egin dituzte. Laguntzaile bakarra izan dute, Iñaki Iradik "Soledad" abestiaren hitzak idatzi ditu.

Kilimak taldearen estreinako lana da "Euskal Herriko runba" diskoa. Sei abesti ditu, bost euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Izenburua tautologikoa da hein handi batean, izenburuak bistan uzten duelako zer erritmo jorratzen diren diskoan. Runba eta runba, eta swing bat; hots, jai, bozkarioa, alaitasuna eta poza. Non Kilimak, han giro atsegina. Kontzertuetan hankak eta besoak runba estiloan astintzeko parada zoragarria eskaintzen digute, eta abesteko ere bai. Entzulea erakarri egiten dute erritmo xume eta dantzagarriekin. Euskal runbaren ziklo berri baten hasierako urratsak egin ditu Kilimak taldeak 2018tik aurrera. Kilimak taldearen "Euskal Herriko runba" diskoak protagonismo musikala izateko osagai asko ditu, jendeak alaitasuna nahi duelako, Euskal Herriak alaitasuna aldarrikatu nahi duelako. Kilimaken runbak entzun eta ikusi ondoren festa dator, seguru. Kilimak taldearen runba melodiek lelo errazak dituzte, entzundakoa istantean errepikatzen modukoak. Testu biribilek melodiei samurtuko dizkiete lanak. Runbak nahitaez izan behar du itsaskor istantean. Kilimak taldea gai izan da sei abestirekin indar paregabe hori emateko diskoari. Kilimak taldearen runbek alaitasun bortitzaren eragina izango dute entzulearengan, eta emaitza laster barreiatuko da Euskal Herrian. Beti delako garaia gorputza dantzan jartzeko, poztasunez bizitzeko, maitasunarekin gozatzeko, lagunartera zorientasuna ekartzeko, runba euskaraz ezagutzeko.

kontratazioa/contratación:
info@baga-biga.eus
659 975 820



GATZA

Dantza egiteko deia da, barnean ditugun lotsak alde batera utzi eta gorputzak eskatzen diguna egitea bultzatzen dut. Askotan besteek gutaz zer pentsatuko duten beldurrez, gure benetako nahiak albo batera uzten ditugu. Isilpeko errepresio ergel hau mozteko egina dago. Inspirazioa Almeriara egindako bidaia batetik dator, bueltan autoan bertan koaderno eta gitarraren laguntzaz sortu nuen abestia.

KONTAKATILU

Joera batzuk salatzen sortu nuen "Kontakatu". Besteen bizitzak epaitzeko daukagun erraztasuna, eta are eta okerrago, haren bizkarretik hitz egitea, eta askotan gure laguna kritikatzeko joerak ez ditut gustuko. Melodia alai eta erraz baten bidez entzuleak bi aldiz pentsatzera bultzatu nahi ditut, ez daitezen horrelako jokaerak gauzatu eta sustatu.

ERRUTINAREN TRANPA

Ofizio kaskar batean lanean pasa nuen denboraldi batean inspiratu nintzen. Errutinaren tranpa deitu nion, pentsatzen dudalako errutina tranpa bat dela, automata bat bezela portatzen garelako. Errutina zulo beltz bat bezela ikusten dut, geroz eta denbora gehiago pasatzen badugu, gure joerak aldatu eta berritu gabe, orduan eta zailago egingo zaigu bertatik irtetea.

SOLEDAD

Hiri industrial batean nengoen hilabete batzuetarako lan kontuengatik, eta nahiko baka-rik. Gau luze baten ondoren etxera bueltan, bakardadean, auto zaratatik kasik sumatzen ez zela, tabakorik ez neukala konturatu nintzen. Eragin zidan ezinegonak eraman ninduen buru barruan neuzkan beldur batzuk azalratzea, eta mugikorrean idatzi nituen.

GAU HONTAN

Udako arratsalde bero batean lagunekin tabernan orduak eta orduak pasa ondoren, as-pertuta eta frustratuta, etxera joan nintzen, eta logelan giltzapetu nintzen gitarrarekin. Kantuaren melodia etorri zitzaidan burura eta horrekin letra idazten hasi nintzen. Maitasun istorioek ekartzen dituzten gora behera ezberdinak kontaktatzen ditu. Gau batean bizitako esperientzia batean oinarriturik dago, ezinezkoa den harreman batean inspiratu nintzen.

BURRUNBA

Gure estilo bereziari erreferentzia egiten dion kantua da, nire musikarekin burrunba sortu nahi dut, jendea dantzan eta kantatzen jarri, hortaz euskaldunei dei bat egiten diet gure musikarekin gozatzeko euskara bultzatuz. Kantuaren erdian euskal abesti tradizional baten zati bat sartzea bururatu zitzaidan, eta ondorioz "Eusko gudariak" abestia "Burrumba" kantuaren doinuarekin nahasi nuen.

Agus Garmendia: ahotsa eta gitarra

Ione Zozaya: ahotsa

Ihintza Zozaya: ahotsa

Ander Larrañaga "Larra": perkusioa

Antxon Gutierrez: baxua

Oskitz Gorrotxategi: tronpetea

ritxi aizpuru
+ kilimak (2021eko urriaren 21a)